

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2012ko apirilaren 13a. IX. urtea. 2.391. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Oriako Txirrindulari Eskolako prestatzaileak eta txirrindulariak. HITZA

Eskualdeko 50 gaztetxo pedalkadaz pedalkada, Oriako eskolaren eskutik

Espainiako Pistako Txapelketan parte hartu berri dute jubenil mailako Oriakoren hiru txirrindularik: Irisarri, Iriarte eta San Sebastian; lehen biek zazpi domina lortu dituzte, horietako bi urrezkoak ◊6



E.MAZ

→ **Isabel Mujikaren lanak, Alegian.** Jubilatuen tabernan beste erakusketa bat jarri dute. Oraingoan Isabel Mujika tolosarraren lanak ikusi daitezke, hamabost koadro, guztira. Paisaiak dira nagusi eta margolariak esandakoaren arabera, ezin da margotu gabe egon; duela hamabi urtetik ia egunero lantzen du bere zaletasuna. ◊4

XIV Orduak, 14 parte hartzailetik 3.000ra pasa den iraupen luzeko mendi ibilaldia

1925. urtean egin zuten lehen aldiz proba; maiatzaren 27an izango da hamabosgarrena ◊2



Juan Mari Sagredo
Euskal Mendi Federazioko kidea

«Uda partean Pirinioetara joateko entrenamendua ziren lehen, XIV Orduak»

Iraupen luzeko mendi ibilaldien zirkuitua hasi berri den honetan, HITZAK proba horietako federazioko arduradunarekin hitz egin du ◊3

Urrezko Txapelketako asteburuko saioetan izango dira Saralegi, Otaegi eta Mujika

Leitzako aizkolaria, Saralegi gaztea, Zerainen ariko da, eta beste biak, Zumaian ◊7

XIV Orduak

1925ean egin zuten, lehenengoz, egungo XIV Orduak iraupen luzeko mendi ibilaldia. Aralarko Adiskideak elkarteak mendizale haiek omentzeaz gain, jasotako lekukoa eta helburuak mantentzen ditu gaur egun.

Pasa den mendeko bidezidorretik

Itzea Urkizu Tolosa

Igaro dira jada 87 urte, gaur egun XIV Orduak ibilaldia izenez ezagutzen dena lehenengoz egin zuten zuzen geroztik. 1925. urtean, mendizale talde bat Tolosatik irten zen, Aralarko santutegira heldu, eta atzera berriro Tolosara itzulita, mendi ibilaldia osatu.

Hamalau pertsona izan ziren mende hasieran ibilbidea egitera irten zirenak, eta gaur egun, 3.000 lagunetik gora izaten dira, mendizaleen olimpiada bilakatu den iraupen luzeko ibilaldi honetan. Hain zuzen ere, XX. mende hasieran Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mendi-bideak zeharkatu zituzten hamalau mendizaleak omentzen ditu egungo XIV Orduak ibilaldiak; Francisco Larrañaga, Eduardo Laborde, Manuel Laborde, Francisco Labaien, Francisco Tuduri, Simon Arrue, Ricardo Diaz Sarasola, Victor Arrillaga, Anton Subijana, Teodoro Agote, Ricardo Azaldegi, Ramon Barrio, Juan Jauregui eta Jose Albero izan ziren ibilbidea lehenengoz burutu zutenak, 1925eko ekainaren 7an.

Aralarko Adiskideak elkarteak, lehen txango hura antolatu eta bi urtera sortu zen, 1927an. Gaur egungo antolakuntza moldeak, ordea, 45 urte beranduago jarri zuten martxan, 1972. urtean. Orduan erabaki zuten Aralarko Adiskideak elkarteak, iraupen luzeko mendi ibilaldi hau lau urtez behin antolatzea, Olinpiar Jokoen urte berean.

Antolatzaileek askotan aipatu izan duten moduan, ibilbidea oinez burutzea da helburua, lehia kutsurik gabe. Azken urteotan, ordea, entzute handiko ibilaldi bilakatu da XIV Orduak mendi ibilaldia. 80ko hamarkadan izan zen parte hartzaileen lehen gorakada, eta 90eko hamarkadatik hona,

hazi egin izan da parte hartu dutenen kopurua.

Aralarko Adiskideak elkarteak dituen datuen arabera, «parte hartzaile gehienak gipuzkoarrak dira». Dena den, Arabatik, Bizkaitik nahiz Nafarroatik ere hainbat mendizalek ematen dute izena. Euskal Herriatik kanpo ere, badu sonarik ibilaldiak ordea, eta Barzelona, Tarragona, Huesca, Lugo, Ciudad Real, Caceres eta Malagako mendizaleak ere etorri izan dira euskal mendiez gozatzen. Areago, Frantziako, Britainia Handiko eta Kubako parte hartzaileak ere izan ditu probak.

2008koa izan zen antolatu zuten azken ibilaldia, eta 3.100 gizon-emakume parte hartu zuten orduan. Aurten, maiatzaren 27an izango da Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mendiak zeharkatzeko ibilaldia, eta izena emateko epea zabalik da jada; www.aralarkoadiskideak.org webgunearen bidez burutu behar da.

Aralarko Adiskideen lana

1927an sortu zen Aralarko Adiskideak elkarteak, eta hasiera-hasieratik beren helbururik behinena izan zen mendira txangoak egiteko gogoak bultzatzea; elkartearen izenak adierazten duen moduan, gainera, Aralarko mendi-kateari arreta berezia eskaini izan diote beti. Garai hartan, mendi irteerak egiteko ohitura sortzen ari zen, eta gehienetan, mendizaleek zenbait oztopo eta zailtasun izaten zituzten mendi magaletara iristeko, errepide nahiz ibilgailuak medio. Egoera honen aurrean, zenbait mendizalari Aralarko mendikatean aterpe bat egitearen ideia sortu zitzaizkien; paraje hartako bideak eskura izateko modua ederra iruditzen zitzaizkien.

Elkartearen 20. urteurrenaren argitaratu zuten liburuxka baten arabera, Francisco Tuduri eta

Francisco Labaien izan ziren ideia aurrera eraman zutenak: Tolosako eta Donostiako mendizale talde txiki bati proiektuaren ideia helarazi zieten idatziz, eta sei hilabeteren buruan lortu zuten, 100 pezetako ekarpena egiteko prest zeuden 100 mendizale biltzea. Horrela eraiki zuten Igaratzako aterpea.

Besteak beste, arrazoi praktikoak izan ziren, mendizaleak aterpea Igaratzan egitera bultzatu zituztenak. Izan ere, kokapen geografikoa bera egokia eta estrategikoa izateaz gain, Mikeleteen etxea izandako erainkin baten hondarrak aurkitu zituzten inguru hartan, eta erabilgarriak izan zitezkeela pentsatu zuten. Gainera, udan ura ematen duen iturri bat ere bada aterpearen inguruan.

Horrela beraz, 1928ko ekainaren 3an ezarri zuten aterpea egiteko lehen harria, eta urte bereko irailaren 9an zabaldu zuten erainkin berria. 20. urteurrenaren liburuxkako testigantzetan ikus daitekeenez, Foru Aldundiak bertan zeuden Mikeleteen etxeko hondarrak eman zizkion Aralarko Adiskideak elkarteari, eta Enirio Aralar mendien magaletan Amezketatik Ordiziaraino dau den 15 herrien esku utzi zuten Mikeleteen egindako etxearen lur-saila.

• tolosaldea@hitza.info

↓ XIV Orduak urtez urte

PARTE HARTZAILEAK

1925. 14 parte hartzaile
1926. 13 parte hartzaile
1943. 111 parte hartzaile
1967. 240 parte hartzaile
1972. 362 parte hartzaile
1976. 416 parte hartzaile
1980. 522 parte hartzaile
1984. 810 parte hartzaile
1988. 1.174 parte hartzaile
1992. 2.002 parte hartzaile
1996. 2.522 parte hartzaile
2000. 3.062 parte hartzaile
2004. 2.979 parte hartzaile
2008. 3.100 parte hartzaile.

IRITSITAKOAK

13 parte hartzaile
8 parte hartzaile
105 parte hartzaile
234 parte hartzaile
283 parte hartzaile
321 parte hartzaile
429 parte hartzaile
687 parte hartzaile
1.066 parte hartzaile
1.665 parte hartzaile
2.244 parte hartzaile
2.822 parte hartzaile
2.718 parte hartzaile
2.666 parte hartzaile



Igaratzako aterpetik pasatzen dira ibilaldiko parte hartzaileak. HITZA



Duela 87 urte 14 mendizale izan ziren arren, gaur egun 3.100 baino gehiagok parte hartzen dute. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Juan Mari Sagredo ◉ Euskal Mendi Federazioko kidea

Euskal Mendi Federazioko iraupen luzeko ibilaldien arduraduna da mendizalea. Gaur egun, mota honetako irteeretako parte hartzaileek azkarrago egiten dituztela dio.

«Jendea gero eta prestatuago ateratzen da iraupen luzeko ibilaldietan»

Joxemi Saizar

Iraupen luzeko mendi ibilaldien zirkuitua duela gutxi hasi da, Villabonako Aizkardi mendi elkar-teak martxoaren 25ean antolatuta zuenarekin, eta urria bitarte ibilaldi ugari izango dira Euskal Herri osoan zehar, tartean Tolosan antolatzen den eta hain jendetsu eta ospetsu den, XIV Orduko ibilaldia. Euskal Mendi Federazioan ibilaldi hauen arduraduna den Juan Mari Sagredo tolosarra elkarriketatu du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK.

Nola izan ziren zure hasierak?

Txikitandik hasi nintzen mendian ibiltzen nire anaiak ere mendizaleak zirelako. Tolosako Oargiko bazkidea naiz eta bertakoekin ibili naiz gehienbat, baina baita beste elkarrekin irteeretan ere. **Eta zeintzuk izan dira zure lorpenik handienak?**

Garaierarik handiena Kilimanjaro izango dut, zilarrezko ezteiak betetakoan joan nintzen emaztearekin. Bestela Pirinioetan eta ibili naiz. Eta iraupen luzeko ibilaldi askotan izaten naiz.

Iraupen luzeen arduraduna zara Euskal Mendi Federazioan. Noiz eta nola sortuzen ibilaldi hauen zirkuitua?

2002an sortu zen Antxon Bandres tolosarraren ekimenez. Lehendik ere egiten ziren ibilaldi luze hauek, baina berak proposatuta zirkuitu batean integratu ziren, Europako beste herrialde askotan egiten den bezala. Aurten 23 izango dira, tartean gure eskualdeko Aizkardikoa eta XIV Ordukoa. Oargiren Txirrita eta Amartzeko martxak ere sartzen dira, baina aurten ez dira egongo, lau urtez behin edo bi urtez behin egiten direlako. Aresoko martxa Nafarroako zirkuituan sartzen da, ez gurean. Inguruen egiten dira beste ibilaldi batzuk gure zirkuituan sartzen ez direnak, Berastegikoa,

Erniopekoa eta Bedaiokoa, adibidez.

Zein baldintza bete behar dituzte zirkuituan sartzeko?

Gutxienez 40 kilometroko luzera eta 2.000 metroko desnibela izan behar dute. Elkarrekin eskaera egin behar dute eta data egokia bilatzen zaie, herrialde eta egun berean bi mar tx a ez izateko. Bi edo lau urtez behin diren ibilaldiek lehentasuna dute data jartzeko garaian. Ingurumena zaintzea eskatzen zaie antolatzaileei. Beste atalak erabaki eta antolatzeko elkarrekin arduratzen dira: ibilbidea, izen ematea, kobratu ala ez, anoak, sariak, opariak...

«Nire aurtengo helburuak Ehun Milak eta Mont Blanc-eko Tourra egitea dira»

«Tolosaldeko jendeak erronka moduan hartzen du XIV Orduko ibilaldia egitea»

Zein da zure zeregina?

Egutegia koordinatu, izen emateko epeak, bukaerako finalisten sailkapena... Arazo handienak egutegia osatzerakoan izaten dira, azaroen. Webgunera (www.zirkuitua.com) egiten eta mantentzen Aizkardi elkarrekin Gotzon Larrea eta Gemma Berasaluze aritzen dira.

Ibilaldi luze horietako askotan hartu al duzu parte?

2004tik hona gehienetan eta finalista izan naiz, hau da, gutxienez zortzi ibilaldi egin ditut eta bost herrialdeetan.

Zein da gehien gustatzen zaizuna?

Gurea, Oargik antolatzen duen Txirrita, antolatzaile eta parte hartzaile bezala bizi dut, gainera. Bestela, Kantauri mendizerran



JOXEMI SAIZAR

egiten dena oso ikusgarria da, bere inguruagatik. Eta Aizkardiarena izango da hobereana antolatzeko garaian. Ingurumena zaintzea eskatzen zaie antolatzaileei. Beste atalak erabaki eta antolatzeko elkarrekin arduratzen dira: ibilbidea, izen ematea, kobratu ala ez, anoak, sariak, opariak...

Eta aurtengo denboraldirako zein asmo duzu?

Hasieran gutxiagotan ateratzea pentsatzen nuen, baina helburu moduan oraindik luzeagoak (100 km edo gehiago) diren Ehun Milak eta Mont Blanc-eko Tourra egitea jarri ditut eta horiek ondo prestatzeko zirkuituko mar tx a dezente eta Hiru Handiak egongo ditut. Euskal Herriatik kanpoko Poferrada, Guara eta Gironako ibilaldiak ere egingo ditut seguru aski, gustukoak ditudalako.

Eta XIV Orduko ibilaldia?

Bai, egingo dut. Ez da ibilaldirik politena, ezta gogorra ere, baina jende gehien mugitzen duena da, abantaila handiz, tra-

dizio handia duelako. Nik ueste dut Tolosaldeko jendeak erronka bezala hartzen duela mar tx a hau egitea. Garai batean udan Pirinioetara joateko entrenamendu gisa hartzen zen.

Zertan aldatu dira ibilaldi hauek guztiak?

Jendea gero eta prestatuago ateratzen da eta azkarrago joaten da. Lehen hamaiketako egitera gelditzen zen jende gehiena, orain ez. Eta denborak jaitsi egin dira noski, lehen orduko lau kilometro egiten ziren, orain bost edo sei kilometro orduko. Batzuk lasterketetarako (ultrafondoko

luzeagoak edo bertikalagoak) prestakuntza bezala hartzen dituzte ibilaldi luze hauek. Oso erosoak egiten zaizkie: markatuta daude, tartean anoak daude... Arautegiaren arabera ezin da korri egin, baina... Eta gero eta jende gehiagok hartzen du parte eta, horren ondorioz, lehenago eman behar da izena. Hiru Handietarako adibidez, urtarri-laren 1ean eman behar da izena, ekainean izanda. Eta Mont Blanc-eko Tourrean izena ematen dute hamar milatik 2.300k bakarrik izango dugu ateratzeko aukera.

Langileentzat eta langabetuentzat IKASTAROA

TOLOSALDEA Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak adierazten du: Apirilaren 17an, «ABB ROBOTAZ soldaketa (35or)» eta «Kalitatearen kudeaketa (20or)», ikastaroak hasten direla eta lekua dagoela, ikastaroak langileentzat zuzenduta daude eta doanekoak dira.

Izen ematea, ikastetxean, 943-65 11 47.

Iragarki laburrak

LANA

■ Pertsonak zaintzeko.

Esperientziadun emakume euskaldunak, arratsalde edota gauz, edadeko edota elbarri dauden pertsonak zaintzeko, bere burua eskaintzen du. Interesatuek, deitu 659 352682 telefono zenbakira.

Bertako informazioari, bertako produktuak

Egin HITZaren harpidedun

apirilaren 3tik ekainaren 1era,

eta jaso

Ekain sagardoa


6 botilako kaxa bana

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info

Harpidedun egiten diren guztien artean

Leizekako Metrokua hotelan, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZUZATZUKO DUCU



Eneritz Maiz Alegia

Isabel Mujika tolosarrak txikitatik izan du margotzeko zaletasuna. Baina benetan margotzen, seme-alabak hazi ostean hasi zen. Bere denbora librea margotzeko baliatzen du, eta duela hamabi urtetik ia egunero margotzen du: «Ezin dut margotu gabe geratu».

Hamabost koadro jarri ditu Alegiako Jubilatuen tabernan. Tolosako kultur etxeko ikastaroen izena eman zuen, eta harrez geroztik ez dio pintzeladak emateari utzi. Argitasunagatik eta eskaintzen duen lekuagatik kultur etxera joatea gustatzen zaio Mujikari. Hala ere, etxean ere margotzen du.

Paisaia eta erretratuak margotzen ditu, eta olioia erabiltzen du bere koadroak marrazteko. Alegiako Jubilatuen tabernan hamabost koadro zintzilikatu ditu. Pintatzen hasi bezain laster hasi zela

Isabel Mujika tolosarrak txikitatik du gustuko margotzea. Duela hamabi urte ikastaro batean hasi zen, eta orduz geroztik ez dio utzi margotzeari. Alegiako Jubilatuen tabernan daude ikusgai bere koadroak.

Olioiz emandako pintzeladak



bere lanak jendaurrean jartzen adierazi du. Tolosako tabernez gain, Donostian ere erakutsi ditu bere koadroak, eta hilabete hau amaitu bitartean, Alegian egongo dira. Bigarren aldiz jarri ditu bertan. Honez gero, konta ezin daitezkeen adina margolan egin ditu.

Isabel Mujikak salgai jartzen ditu bere lanak. Dezente saldu dituela aitortu du, baina krisi garaia direla ere igarri du: «Nabari da, eta orain gutxiago saltzen dut». Baina saltzeak bezainbeste ilusio egiten dio jendeak berak egindako lanak gustuko dituela jakiteak: «Poz handia sentitzen dut kalean nire lana gustuko dutela esaten didatenean».

Hilaren amaiera bitartean, Jubilatuen tabernako paretetan egongo dira zintzilik. Inork bertatik pasa, eta begirada bat bota nahi izanez gero, badu oraindik denbora.

• alegialde@hitza.info



Paisaiak nagusi diren koadroak hilaren amaiera bitartean egongo dira ikusgai; hamabost koadro dira guztira, eta olioiz margotutakoak dira. E. MAIZ

Herrira mugimenduaren aurkezpena, Alegian

Gaur, 19:30ean, izango da aurkezpena herriko plazan; bertsolari eta txalapartariez gain, zahagi ardoa izango da

E. Maiz Alegia

Gaur, 19:30ean, Herrira mugimenduaren aurkezpena egingo dute, Alegiako plazan. Alegian

izango den arren, Amezketa, Abaltzisketa, Altzo, Ikaztegieta, Orendain eta Baliarrain herrieta bizilagunei ere dei egiten zaie bertara gerturatzeko.

Bertan, bertsolari eta txalapartariez gain, preso eta iheslarien eskubideen alde lan egiteko sortu den Herrira mugimenduaren aurkezpen labur eta arina burutuko da. Ondoren, inguratzen den guztiarentzat zahagi ardoa egongo da Alegiako plazan.

→ Laburrak

Hilaren 23rako ipuin kontalari bila, eskolan

ALEGIA › Hilaren 23an Libururen Eguna ospatuko dute eskolan. Eskolatik pasatako ikasleak, gurasoak edota herritarrek ipuin kontalari bihurtu nahi dituzte. Egunean bertan haurrei ipuin bat kontatzea edo irakurtzea da helburua. «Ekintza polita» izan daitekela eta, prest egonez gero, eskolako 943 65 32 37 telefono zenbakira deitu edo eskolatik pasa behar da.

Beterriko Liburua saria Canoren 'Twist'-ek jaso du

LITERATURA › Harkaitz Canok idatzi eta Susa argitaletxeak plazaratutako *Twist* eleberria aukeratu dute 2011ko Beterriko Liburu, 111 Akademiako akademiakideek. Azken urteetan baino lehenago ezagutu da irabazlearen izena. Lehen aldiz, Canoren eleberriak bi bozketa txanda nahikoa izan ditu sari-dun izendatzeko behar zuen boto kopurua lortzeko. 82 akademiakideek hartu dute parte bozketa prozesuan. Maiatzaren 10ean, 19:30ean, izango da eza-gutzera emateko ekitaldia, Amasako kultur etxean.

Langabetuentzako eta langileentzako ikastaroak

TOLOSA › Langileentzat eta langabetuentzat diren ikastaroen antolatu ditu Tolosaldeko Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak. Hilaren 17an, asteartean, hasiko dira. Alde batetik, ABB Robotaz soldaketa ikastaroa eskaintzen dute, eta 35 ordukoa izango da. Beste aldeetik, kalitatearen kudeaketaren inguruko ikastaroa izango da, eta 20 orduko iraupena izango du. Bi ikastaroetan oraindik tokia dago, eta izena eman daiteke. Izena ikastetxeko 943 65 11 47 telefono zenbakira deituz eman behar da.

Lau kilometro inguruko ibilbidea da Bidegoian osatzen duten Bidania eta Goiatz auzoetan barna egin daitekeena; bide erraza da, eta bitxikeria ugari ezagutzeko aukera ematen du.

Pausoak herrigunerik altuenean

Iñigo Terradillos Bidegoian

Bidania eta Goiatz. Eta, euren arteko batuketaren emaitza, Bidegoian. Bitxia da, izan ere, horrelakoetan bi herrien izena hartu ohi da. Beraz, Bidania-Goiatz izatea ez litzateke arraroa izango. Baina, 1964an bi herriok elkartu zirenean, euren agintariak izen berria behar zuela izan erabaki zuten. Deigarria da izena, bi herrien izenen batzetik sortua dirudielako, eta aldi berean, adiera ere baduelako. Egoki datorkion adiera, inondik inora. Bai Tolosatik, bai eta Azpeititik joanda ere, bidearen goialdean baitago Bidegoian. Izenetik haratago, bisitatzeko merezi duen hamaika ezauzgarri gordetzen ditu herriak.

Bidanitik Goiatzerako joan-etorria baliatu ahal du ibiltariak herria gertutik ezagutzeko. Autobus geltokitik abiatuta, pilotalekuaren atzetik igaro, eta familia bakarreko etxe berrien artean sorturiko kaletik joango da. Kalea amaitu egingo da, baina jarraitu daiteke Iriondo baserriaren aldamenetik igarotzen den bidetik.

Urrutian, Goiatz auzoa bistarazten da. Bidexkak errepidera eramango du ibiltaria, eta handik malda txiki bat gaindituta, bi edo hiru minutuan iritsiko da Goiatzera. Bidaniaren herena da Goiatz biztanleen kopuruari eta azalera dagokionean. Antzina zera esaten zuten bertan, eguzkia eta lainoa tartekatzen ziren egunetan Mari ikus zitekeela haria maskaltzen, Murumendi mendiko kobazulo baten sarreran. Kobazulo horretan, Itsasondoko apaiz batek meza ematen omen zuen zazpi urtetik behin. Bestalde, ohiturari jarraituz, maiatzean belar eta lore sortak eramaten zituzten San Joan baselizara, ondoren, baserri atarian erretzeko ekaitza zetorrenean.

Goiazko plazarako bidean, iturri berezia dago. 1914. urtekoa da, eta harriko idatziaren arabera, Labayenena da. Iturriari loturiko karteltxoak diotenaren arabera, debekatuta dago bertan garbiketa lanak egitea. Antza, agintariak

250 pezetako isuna jartzen zieten iturria horretarako erabiltzen zuten herritarrei. Beraz, bertako ura edatera mugatuko da ibiltaria.

Bidanira itzulia

Iturria bezain berezia da Goiazko plaza, pilotaleku, eta taberna eta guzti. Herrigunea nahikoa ikusi eta gero, Bidanirantz zuzenduko ditu pausoak. Goiatzera eraman duen bide bera erabiliko du horretarako, geltokira iritsi arte.

Ibilaldia zertxobait osatze aldera, Tolosarantz doan errepideko espaloitik jarraituko du. Herrigunea atzean utzi, eta zuzen luzera iritsiko da. Bada, espaloia bukatu arte jarraituko du ibilian, eta puntu horretan, eskuinera hartuko du, han zabaltzen den bidexkan aurrera eginez. Bidexka horren bitartez itzuli bat emango du, hainbat baserri zeharkatuz. Berrero ere, errepidera iritsi arte, ezkerrean hartuko du, Bidanira joateko.

Azpeitirako bidean bi aukera irekitzen diren puntura iritsiko da. Hau da, Urrakitik segi, edota Bidanitik barna Errezil igaroz. Bigarrena, eskuinekoa, aukera-



Bidegoiango Bidania auzoa, Tolosarantz edo Azpeitirantz doan errepidetik ikusita. IT.

tuko du, eta plazara iritsiko da, harategiaren parean dagoen tabernatik eskuinerako bidea hartuz. San Bartolome eliza izango du parez pare.

Bidegoianek azken urteetan bisitarien kopurua igo izanaren errudunetako bat plazatik oso gertu dagoen Iriarte jauregia izan daiteke. XVII. mendeko eraikinean hotel zerbitzua eskaintzen dute 2009az geroztik, eta arduranen arabera, harrera «oso ona» izan du.

Gipuzkoako altuera handieneko herrigunea du Bidegoianek. Kokapenarengatik izan da, hain justu, garrantzitsua historian, Oria eta Urola bailarak batzen zituelako. Beizama, Errezil eta Aiarekin, Mendietako bost herrixkak izenez ezagutzen zen multzoa osatu zuen. Bost herrixka horiek Sayazeko Alkatetza Nagusiaren zati ziren, Aia, Laurgain, Urdaneta eta Albizturrekin.



Goiatz auzoan dagoen 1914. urteko *Erriko iturria*. IT.



FATXI JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA



DATUAK

- **Luzera.** 3.800 metro.
- **Ezaugarriak.** Joan-etorria eta biratxo bat.
- **Hurbilketa.** Renfe trenean Tolosara edo Alegiara gerturatu, eta handik, autobusez.
- **Hasiera-bukaera.** Bidaniako autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Orokorrean ibilbide erraza da, malda zailik gabea.
- **Azalpenak.** Bidegoian osatzen duten bi auzoetatik egin daitekeen ibilaldia da.
- **Interesguneak.** Bidanien, San Bartolome eliza, udaletxea eta Iriarte jauregia. Goiatzen, berriz, Andre Mari eliza eta Goiazko dorrea.

Txirrindularitzari bultzada emanez



Ane Iriarte, Jon Irisarri eta Xabier San Sebastian, Oriako Txirrindulari Eskolako egoitzaren aurrean. IGL

Oriako Txirrindulari Eskolan eskualdeko 50 gaztetxo daude, asko txirrindularitzan euren lehen pedalkadak emanez

Espainiako Pistako Txapelketan emaitza oso onak lortu dituzte taldeko txirrindulariek

Imanol Garcia Landa

Oriako Txirrindulari Eskolak hasi du aurtengo denboraldia. Tolosan du egoitza, eta Tolosaldeko txirrindulariek parte hartu ahal dezaketeko taldean, Javier Goenaga lehendakariak zehaztu duenez: «Beste kiroletan ez bezala, txirrindularitzan Gipuzkoa eskualdeka banatuta dago, eta ezin dugu beste eskualdeko txirrindulari hartu». Taldeak Peugeot Mobesa izenarekin hasi zuen ibilbidea 1980an, eta gero, 1986an, hartu zuen egungo izena.

Benjaminetatik hasi eta jubentilat arte, hau da, 10 urtetik hasi eta 18 urte bitarte, 50 txirrindulari inguru daude taldean, horietatik sei neska. «Beste urteekin alderatuta, txirrindulari asko daude orain taldean», dio Goenagak, «baina orain dela 15 edo 20 urte ehunetik gora izaten genituen». Azken lau urteetan txirrindulari gazteen kopurua mantantzen ari dela gaineratu du Goenagak:

«Izan zen momentu bat Gipuzkoa mailan jaitsi egin zela, baina orain mantentzen ari da».

Aitor Aiertza prestatzaileak gaineratu duenez, «Nafarroan eta Araban jaitsi egin da txirrindularitza, baina Gipuzkoan oso ondo mantentzen da». Gipuzkoan egiten diren lasterketa kopuruak aipatu ditu horren adibide Goenagak: «Maila guztietan ia astebururo daude lasterketak, eta hori hemendik kanpora ez dago. Horrek hemengo gaztetxo gehiagok parte hartzea eragiten du». Txirrindulari lasterketa batean parte hartzeak beste kiroletan baino konplexuagoa dela dio Aierzak: «Beste kirol batzuetan arropa eramaten duzu, baina hemen bizikleta eta beste hainbat gauza eraman behar dituzu».

Babesle berria

Denboraldi honetan babesle berria da: Cartonajes Limousin. «Oso zaila da babesleak lortzea», dio Aierzak. «Lortzen direnak,

gustura egoten dira eta normalean urte batzuetarako izaten dira. Baina egoera ekonomikoa ez da ona; azken unean lortu dugu Limousinek parte hartzea, eta guretzat oso garrantzitsua izan da». Errepideko txapelketak maiatzean izan ohi dira. Orain pistakoak izan dira eta Euskadiko Txapelketan eta Espainiako Txapelketan emaitza oso onak lortu dituzte.

Entrenamenduei dagokionez, txikienekin pare bat aldiz ateratzen dira astean errepidera. «Gurasoei laguntza eskatzen diegu, asko baitira errepidean joateko, eta oraindik errepidean ibiltzen ikasten ari dira. Egia esan, gurasoek asko laguntzen dute», azaldu du Aierzak. Bi ibilbide egin ohi dituzte. Alde batetik, Lizartza aldera joenez, errepide zaharretik. Bestetik, Alegiaraino bidegorritik joan, eta gero errepidea hartuz Ikaztegieta aldera. Larunbat arratsaldetan izan ohi dira lasterketak.

Pistako entrenamenduek egiteko, Donostiara joaten dira, eta han izaten dituzte Gipuzkoako eta Euskadiko selekzioako prestatzaileak. «Neguan Gipuzkoako Federazioak challenge bat antolatzen du. Eta hara talde bezala joaten dira. Gero hortik aurrera ez dituzte proba asko eta joaten direnak selekzio moduan joaten

dira», dio Aierzak. Espainiako txapelketara joan diren taldeko txirrindulariak Euskadiko selekzioarekin joan dira.

Helburua, kirola egitea

Taldeko helburuei buruz galdezkean, Goenagak argi du: «Gazte txoek kirola egitea eta gozatzea. Hortik aurrera, gure txirrindularietako bat profesional bihurtzen bada sekulako poza izango da». Amaia Etxedona prestatzaileak gaineratu duenez, «ondo pasatu eta ikastea, hori da maila txiki-kin dugun asmoa». Behin ere ez zaiela exijitu emaitza jakin batzuk esan du Aierzak: «Urte batzuetan besteetan baino txirrindulari hobeagoak daude; denboraldiaren arabera joaten zara helburuak jartzen, baina babesleak ez digu emaitzak exijitzen eta guk ere ez txirrindulariei».

Aurten ireki dute webgunea, www.oriakotxe.com, eta bertan taldeari buruzko informazioa jaso ahal da. Zenbait lasterketa ere antolatzen ditu Oriako Txirrindulari Eskolak. Anoetan jubentilat mailako lasterketa antolatzen du eta Tolosan afizionatuentzat. Txikienez, hau da, infantilentzat, alebinentzat eta benjaminentzat, Alegian eta Anoetan antolatzen dituzte. Zirkuitu bat egiten dute eta horri itzuliak emanez izaten da proba.

Afizionatu mailari dagokionez, hiru eskola elkartu dira aurten: Oriako, Andoain eta Ordizia. Aierzak dioenez, «orain arte taldea Oriakoren ardurapean izan da, babeslea hemengo zelako, eta Andoaingo eta Goierriko txirrindulariak hartzen genituen. Baina aurten afizionatu mailako babesleak ez du jarraitu, eta hiru eskolek bat egin dute». Orain Goierri du egoitza afizionatu mailako taldeak, hango babeslea lortu baitute. Arduraduna tolosarra da, aurretik taldea eramaten zuen bera.

Zazpi domina Espainiakoan

Espainiako Pista Txapelketa jokatuko berri dute jubentilat mailako Oriako taldeko hiru txirrindulari: Jon Irisarri eta Xabier San Sebastian tolosarrak eta Ane Iriarte billabonatarra.

Irisarrik lau domina eskuratu ditu: urrezkoa abiaduran, eta hiru zilarrezko, keirin, kilometroa eta taldekako abiadura probetan. «Ez nuen espero emaitza horiek lortzea», azaldu du Irisarrik. «Podiumean sartzeko aukera izango nuela bai, baina ez hainbeste lortzea».

Ane Iriartek bost probetan parte hartu du eta hirutan dominak eskuratu ditu: taldekako abiaduran urrezko domina eskuratu du Ziortza Isasirekin batera, Espainiako marka hobetuz; keirin proban zilarrezkoa eta jazarpenean brontzezkoa eskuratu du. «Nik espero nuen probetan ez nuen lortu dominik», esan du Iriartek. «Puntuaketa proban lortu nahi nuen, eta saiatu nintzen taldetik ihes egiten, baina ez nuen lortu». Askok poztu da taldekako abiaduran lortutako markarengatik. Tania Calvo eta Ana Usabiagak zutena hautsi dute, egun pistako probetan goi mailan aritzen diren txirrindulariak. «Guretzako marka hobetzea oparia izan da», dio Iriartek.

Xabier San Sebastianentzat ez da izan txapelketa oparoa. Lau probetan parte hartu behar zuen. Kilometroan ez du parte hartu, gaixo zegoelako: «Hor ez nuen parte hartu, taldekako jazarpenan parte hartu ahal izateko, hori baitzen probarik garrantzitsuenak». Baina proba horretan ere ezin izan zuen parte hartu, scratch proban erorikoa izan baitzuen: «Azkeneko itzulian, aurrean taldeko bat egin zen, eta txirrindulari bat erori eta nik bizikletaren aurka jo nuen».

Hiruak lehenengo urteko jubentilat dira, eta bigarren urtekoekin ere lehiatu dira txapelketan. Beraz, meritu handia dute lortutako emaitzek. Orain errepideetako lasterketara bideratu beharko dituzte euren ahaleginak.

Eneko Saralegi, Joseba Otaegi eta Jexuxmari Mujika, urrezko aizkoraren atzetik

Urrezko Aizkolarien txapelketaren bi jardunaldi jokatu dira; bata, Zerainen eta, bestea, Zumaian

Asier Imaz

Urrezko Aizkolarien banakako txapelketaren hirugarren jardunaldiko bi lehia jokatu dira ondorengo egunetan, Zerainen eta Zumaian. Eskualdeko aizkolariek bi herri horietan egongo dira, aurrera egiteko gogoz.

Hilaren 15ean, etzi, Zeraingo pilotalekuan 12:00etan hasiko da herri kirol jaialdia. Hamabi aizko-

lari joango dira bertara, eta lehia jarraitzea bermatuko duten bi txartel egongo dira jokoan. Eneko Saralegi leitzarri bertan egongo da, beste hamaika hauekin batera: Xabier Dorronsoro, Jesus Mari Lasa, Aratz Mugertza III.a, Julen Kañameres II.a, Iban Resano, Arkaitz Jauregi, Jose Angel Zubiaga, Iñaki Kintana, Aritz Irazabal eta Juan eta Jon Rodriguez.

Mujika eta Otaegi

Zeraingo proba jokatu eta hurrengo egunean, hilaren 16an, Zumaian ariko dira aizkolariek, txapelketa berdinaren barruan. Kasu honetan, eskualdeko bi irteneko dira lehia: Jexuxmari

Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra. Azken honek, banakako txapelketa irabazi zuen martxoaren 4ean Unai Otaño ibartarrarekin bikotea osatuz, Azpeitian. Orain, banakako txapelketa, lan txukuna egiten saiatuko da gainontzeko aizkolarien modura.

Zumaian astelehenean San Telmo ospatuko dute, herriko jaietako egun handia. Banakako aizkora txapelketa sei aizkolari ariko dira lehia, 18:30etik aurrera. Bi txartel egongo dira jokoan, eta eskualdeko bi herri kirolariek batera, Ander Erasun, Antonio Senosian, Mikel Larrañaga eta Ugaitz Mugertza II.a ariko dira lehia.

→ Laburrak

Jaiak antolatze bilerak eta erakusketarako deia

ANOETA ▶ Udaletik azaldu dutenez, festak antolatze hurrengo bilerak hilaren 17an, asteartean, egingo dute udaletxean, 19:00etan. Bide batez, Anoetako jaietako erakusketan parte hartu nahi dutenek hilaren 20a baino lehen deitu beharko dute udaletxera, udaletik azaldu dutenez. Eskualdeko artista guztiak animatu dituzte parte hartzera, profesional izan edo ez izan.

Gaztetxea irekiko dute bihar, festa giroan

ASTEASU ▶ Matxintxulo Gazte Asanbladak bere gaztetxea izango du larunbatetik aurrera, Elizmendi auzoan egokitu berri duten lokalean. *Gaztien gooooolo pasotismoari* lelopean, 15:00etatik aurrera emango diote hasiera jaiari. Mus Txapelketarekin. 19:00etan triki-poteoan irteneko dira, 21:00etan gaztetxearen aldeko afaria egiteko. Gauean Ingo al deu? taldearen kontzertua eta DJak egongo dira, 23:30etik aurrera.

Udalbatzaren ezohiko batzarra, hilaren 16an

LEITZA ▶ Udaletxeko biltzararetoan Leitzako Udalbatzak ezohiko batzarra egingo du hilaren 16an, astelehenean. Ezohiko bilera mota 19:00etan hasiko dela jakinarazi dute udaletxetik.

Bi orduz trafikoa mozketak egingo dituzte bihar

VILLABONA ▶ Irrintzi elkarteak antolatuta bihar, hilak 14, txirrindulari proba jokatu da Villabona erdigunean. Kirol ekintza dela eta, 16:00etatik 18:00etara, trafikoa moztuko da Kale Berrian, eta mozketak ezberdinak egingo dira Altzin eta Txermin kaleetan.

↓ Kirola Tolosan

LARUNBATA

MAHAI TENISA

11:00. Oargi eta Irunen arteko partida, Usabalen.

SASKIBALOA

12:00. Euskal ligako kadete nesken partida Usabalgo goiko kantxan: Take-Getxo.

16:00. Euskal ligako junior mutilen partida Usabalgo beheko kantxan: Take-Ekialde.

ARETO FUTBOLA

16:00. Bigarren B mailako partida Usabal kiroldegiko goiko kantxan: Laskorain Ikastola-Sala 10.

FUTBOLA

16:30. Berazubiko futbol zelaian Nazional Ligako partida: Tolosa CF-Ariznabarra.

Haur eta helduentzako zinea ikusgai, Tolosan eta Villabonan

Erredakzioa

Tolosako Leidorren *Shame* filma ikusteko aukera egongo da gaur, 22:30etatik aurrera. Steve McQueen zuzendari ospetsuaren lana gaur ikusterik ez duenak, bihar beste bi aukera edukiko du, 19:30ean eta 22:30ean jarriko baitute ikusgai, Leidorren. Igandean, 17:00etan *Una aventura extraordinaria* filma eskainiko dute haurrentzat, eta 19:30ean eta 22:00etan *Intocable*. Astelehenean, ikuslearen egunean, 20:30ean hasiko da azken film hau.

Villabonako Gurea aretoan, *Esto es la guerra* filma jarriko dute bihar, 19:30ean eta 22:15ean, etzi, 19:30ean, eta astelehenean, 21:30ean. Etzi, haurrentzat *Aita, zonia naiz* filma eskainiko dute, 16:30ean.

Hitzaldi bat, musika eta erakusketa, bertatik bertara

Hainbat sailetako ekitaldi «interesgarriak» finantzatzen lagunduko du udalak, eskaria egin ez gero

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Udalak zabaltzen duen kultur eskaintzaren barruan, hilaren 17an, asteartean, 65 urtetik gorakoentzat hitzaldia egongo da Atxulondo kultur etxean, 16:00etan. Bertan, hirugarren adineko oinezkoen zirkulazio isuripak eta kolpaketak ohartzeko erak aztertuko dituzte.

Leku berean, baina hilaren 23an, Loatzo musika eskolako Zizurkilgo ikasleek musika emaldia eskainiko dute, 17:30etatik aurrera.

Hilaren 17tik 20ra, bestalde, Iriarte kultur etxean San Millan eskolako ikasleen erakusketa jarriko dute. Bertan, artearen eta biografiaren inguruan egindako lanak egongo dira ikusgai.

Azkenik, diru laguntzen inguruko deialdia zabaldu dute udaletik: kirola, kultura, hezkuntza, gazteria eta euskara inguruko ekintza «interesgarriak» finantzatzeko eskaerak aurkezteko epea hilaren 30ean amaitzen dela azaldu dute.

Anabel Egues elduaindarra EPPK-ren mintzakide izendatu dute

Erredakzioa Elduain

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, EPPK-k, barne antolakuntza berri du, eta sei preso izendatu ditu mintzakide. Horien artean, Anabel Egues preso elduaindarra dago, Jon Olarra, Xabier Alegria, Lorentxa Gimon, Marixol Iparragirre eta Mikel Albisurekin batera.

Berria eta *Gara* egunkariei eskainitako elkarrizketan, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak dei egin die Espainiako eta Frantziako gobernuei Mintzakidetzarekin bil daitezten, «dagozkigun eskubideen errespetu eta gauzatzea jorratzeko».

◉ Hilberriak eta eskertzak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



-ESKERTZA ETA MEZA-



LUIS BELDARRAIN ZUBILLAGA

Bere emazteak, semeak, anai-arrebek, ezkon anai-arrebek, izebek, ilobek eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizute samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere. Eta gonbidatzen zaituztete bere ari-maren alde ETZI, IGANDEA, eguerdiko HAMABIAK ETA LAURDENETAN Berastegiko SAN MARTIN parrokian elizan egingo den mezara.

BERASTEGIN, 2012ko apirilaren 13an



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairitzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Herritarrek astelehenean hasi ahal dira TAO txartelak eskatzen. Udalak jakinarazi duenez, bihar bertan jasoko dute informazioa eta eskaera egiteko orria beren buzoietan. Behin eskaera orria beteta eta 15 euroko ordainketa eginda udaletxera eraman behar dituzte ibarretarrek. Garrantzitsua da ordainketa egiterakoan konzertu bezala autoaren matrrikula jartzea. Epea hilaren 16tik 27ra luzatuko da, eta zalantzak argitzeko 943 67 07 01 telefono zenbakira deitu daiteke, edo udaltzaingoa@ibarrakoudala.net helbidera idatzi. Eskaera orriak www.ibarrakoudala.net en ere badaude.
- **Tolosa.** AurrezAurre jardunaldiak amaituko dira bihar. 18:00etan Zapalduen Antzerki-ko taileren emaitza erakutsiko dute, kultur etxean.
- **Alegia.** Gaur bukatuko da gizarie zerbitzuetako ikastaroan izena emateko epea. Doako ikastaroa da, eta bertan menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzarako trebakuntza landuko dute. Eskolak hilaren 16an hasi eta maiatzaren 11n bukatuko dira, 10:00etatik 12:00etara, 40 ordu guztira. Izena emateko 943 65 47 68 telefonora deitu behar da.
- **Tolosaldea.** Eskualdeko Herri-ri mugimenduak bihar, Bilbon, 17:30ean, Parot doktrinaren aurka egingo den manifestaziora joateko deia egin du.

Gernikako Akordioaren sinatzaileek antolatu dute mobilizazioa eta eskualdean hainbat autobus antolatu dituzte herritarrek. Tolosan 15:30ean aterako da autobusa Santa Klaratik; Anoetan Itzuli tabernan eman daiteke izena; Alegialdean ere ohiko tokietan egin daiteke; Villabonan Iratza elkartean eman daiteke izena eta autobusa 15:30ean, aterako da Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik; eta Berastegi, Berrobi eta Elduaingo bizilagunek udaletxeetan eman dezakete izena eta baita Berastegiko Urepelen ere. Azken hiru herri hauetan haurrek eta langabetuek ez dute autobusa ordaindu beharko.

■ **Leitza.** Cederna Garalur elkar-teak zerga kudeaketari buruzko ikastaroak antolatu ditu datorren astearte eta ostegunerako. Udal liburutegian, 09:00etatik 13:00etara, izango dira bi saioak. Izena emateko 948 56 70 10 telefono zenbakira deitu behar da edo sakana.admon@cederna.eshelbidera.idatzi.

■ **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak, urtero legez Baigorri- ingo den Nafarroaren Eguna- ra joateko autobusa antolatu du. Jai eguna hilaren 29an izango da, eta autobusa 08:30ean aterako da zezen plazatik. Izena Galtzaundiko egoitzan eman behar da. Bazkide diren pertso- ne 10 euro ordaindu behar dute, eta ez direnek, aldiz, 12.

■ **Tolosa.** Talde errepublikarrak errepublika omentzeko jardue- rak egingo ditu bihar, tartean

bazkaria, Fronton jatetxean. Joan nahi dutenek 23 euro sartu behar dituzte 2101 0067 26 0013003603 kontu zenbakian izena eta abizena adierazita. Egitaraua honakoa da: 12:00etan lore eskaintza egingo dute hilerrian, *Errepublika eta Euskal Herriaren Askatasuna- ren Alde Hildakoei Monumen- tua* izeneko lanean; 13:00etan, banderak eta materiala salduko dituzte; eta, jarraian, 14:00etan, bazkaria egingo dute Fronton jatetxean.

■ **Villabona.** Gaztelekuak ardu- radunek Larraitzeko Abentura Parkera joateko irteera antolatu dute gaurko. 10 euro ordaindu behar da.

■ **Tolosa.** San Joan eguneko Bordondantzako entseguak datorren ostegunean hasiko dira, apirilaren 19an, 20:00etan, Usabal kiroldegian.

ZINEMA

- **Villabona.** Gurea zinemari bihar, *Esto es la guerra* filma, 19:30ean eta 22:15ean. Igande- an haurrentzako *Aita, zombi- naiz* filma 16:30ean, eta *Esto es la guerra*, 19:30ean. Astelehe- nean, ikuslearen eguna, *Esto es la guerra*, 21:30ean.
- **Tolosa.** Leidorren gaur, *Shame* 22:30ean; bihar filma bera, 19:30ean eta 22:30ean; eta igandean 17:00etan, *Una aven- tura extraordinaria* haurrentze- ko, eta *Intocable* 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikus- learen eguna, *Intocable*, 20:30ean.

TXOTXONGILOAK

- **Ibarra.** *Bikokote* emanaldia gaur, 17:00etan, kultur etxean. Ttinbili Ttanbala taldearen azken lan honek txotxongiloen eta aktoreen lana batzen ditu.
- **Tolosa.** *Bete dezagun txo- txongilo zitsasoa!* tailerra Topic zentroan. Ikastaroa asteartean hasi zen eta gaur da azken eguna. 10 eta 13 urte bitarteko, biak barne, gazteei zuzendutako tailerra da, eta 09:00etatik 13:30era ariko dira. Haurrek ha- maiketako etxetik eraman behar dute, eta ordu erdiko atse- denaldian izango dute jateko aukera. 943 65 04 14 telefonora deituta eman daiteke izena.

MENDIA

- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkar- teak mendi irteera antolatu du iganderako. Txangoa Beintzan abiatuko dute, eta Donamaria- raino joango dira. Zoratzipi eta Txaruta mendiak igoko dituzte 7 orduko ibilaldian. Autobusa San Frantzisko pasealekutatik aterako da, 07:30ean. Parte hartu nahi dutenek, bazkideak badira 11 euro ordaindu beharko dute, eta ez badira 13 euro. Izena emate- ko 943 65 27 89 telefono zen- bakira deitu behar da, edo alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatzi.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Bihar da Aranburu jauregiko AurrezAurre erakus- keta ikusteko azken eguna.

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak